

BETELUKO "BAÑOS GOIKOLA" ATSEDENLEKUAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Beteluko 2. poligonoko 897 eta 881 lursailetan dagoen atsedenlekua eta bainugunea, Goikola bainuak izenez ezagutzen dena, urte osoan erabiltzen da, eta bereziki udan, uztailaren 1etik irailaren 15era bitartean. Bertan, edonork goza dezake naturaz Araxes ibaiaren erriberan. Eremuak aparkalekua, askaldegia eta bainua hartzeko gunea ditu.

Arlo honen erabilera arautzeko ordenantza hau.

"GOIKOLA BAINUAK" BETELUKO ATSEDENLEKUAREN BAIMENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua: Aplikazio-eremua eta -epea.

Ordenantza honek 2. Poligonoko 897 eta 881 lursailetan dagoen "Goikolako bainuak" atsedenlekuaren erabilera arautzen du, eta urte osoan zehar aplikatuko da. Erabiltzaileek kontuan izan beharko dute adierazitako lurzatiak bakarrik hartzen dituela, eta debekatuta dagoela mugakide diren edo itxita dauden eremuetara sartzea, titulartasun pribatukoak baitira.

2. artikulua: Beteluko Udalaren eskumena

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84.1 artikuluan eta 139. artikulutik 141.era bitartekoetan aurreikusitakoaren arabera Udalari dagozkion eskumenak erabiliz eman da.

3. artikulua: Instalazioa erabiltzeko ordutegia

Jolas-gunea 11:00etatik 21:00etara erabili ahal izango da, eta erabat debekatuta egongo da inguruan kanpatzea edo gaua igarotzea.

4. artikulua: Bainua

Seinaleztapenaren arabera ezarritako eremuetan bainatzea baimenduta dago.

Bainu-denboraldia urtero baimenduko da, Nafarroako osasun publikoaren eta lan-osasunaren institutuaren urteko ebazpenean xedatutakoaren arabera.

Bainua ez dute ezein langilek zainduko, eta, beraz, erabiltzaileek beren borondatez egingo dute, beren erantzukizunpean.

5. artikulua: Animaliak

Debekatuta dago etxeko animaliak atsedenlekuan sartzea.

6. artikulua. Ibilgailuak

Udalak prestatutako gunean aparkatu beharko dira ibilgailuak.

7. artikulua. Eremurako sarbidea

Honako hauek sartu ahal izango dira eremuan:

A) Betelu eta Araitz udalerrietan eta Errazkin eta Lezaetako kontzejuetan erroldatutako pertsonak. Era berean, bi lagun ekar ditzakete erroldatutako pertsona bakoitzeko.

B) Udalak prestatutako eremuan ibilgailua aparkatu duten pertsonak. Egokitutako eremuan aparkatuta dagoen pertsona bakoitzeko lau lagunek izango dute sarbidea.

C) Bizikletaz edo garraio publikoan doazen pertsonak. Udalak egokitutako gunean aparkatuko da bizikleta, eta garraio publikoaren erabilera dagokion tiketaren bidez egiaztatuko da.

D) Betelu, Araitz, Errazkin eta Lezaetako ostalaritza-establezimenduetan ostatu hartutako pertsonak. Ostatua dagokion establezimenduak emandako dokumentuaren bidez egiaztatuko da.

8. artikulua. Egokitutako gunean aparkatzea

Aparkaleku-plaza erreserbatu beharko da Beteluko Udalaren aplikazioaren bidez.

9. artikulua.- Aparkatzeko plazaren prezio publikoa

Udalak prestatutako aparkaleku bakoitzeko prezio publikoa 5 euro/eguneko izango da auto/furgoneta/autokarabana bakoitzeko, eta 2 euro/eguneko motozikleta bakoitzeko.

10. artikulua: Kutsadura akustikoa

Ez dago baimenduta bozgorailuak, megafonoak edo soinuak, ultrasoinuak edo zaratak sortzen dituzten tresnak erabiltzea, baldin eta erabiltzaileei traba egiten badiete eta ingurune naturala asaldatzen badute.

11. artikulua: Hondakinen autokudeaketa

Gune hori zero hondakin gune gisa kudeatzen da.

Erabat debekatuta dago paperak, plastikoak, botilak, zigarrokinak, janari-hondarrak eta beste edozein hondakin organiko edo ez-organiko lurrera edo uretara botatzea.

Erabiltzaileek beren hondakinen ardura hartu beharko dute.

12. artikulua: Sua

Debekatuta dago sua erabiltzea modalitate guztietan, baita gas-labeak, barbakoak edo antzekoak ere.

13. artikulua: Piknik erako otorduak

Erabat debekatuta dago piknik erako janariak egitea

14. artikulua: Aulkiak, mahaiak edo bestelako altzariak instalatzea

Aulkiak, etzaulkiak, hamakak eta antzekoak bakarrik erabili ahal izango dira, eta debekatuta egongo da mahaiak, eguzkitakoak, karpak eta abar jartzea.

15. artikulua: Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hauste arinak dira:

- a) Baimendutako aparkalekuetatik kanpo aparkatzea
- b) Aparkalekuan aulkiak, mahaiak eta antzeko elementuak jartzea
- c) Mahaiak, eguzkitakoak, karpak eta gainerakoak instalatzea.
- d) Piknik erako otorduak egitea
- e) Bozgorailuak, megafonoak edo soinu, ultrasoinu edo zaratak sortzen dituzten tresnak erabiltzea, erabiltzaileei traba egin diezaieketenak eta ingurune naturala nahasten dutenak.
- f) Sua erabiltzea
- g) Gauda igarotzea
- h) Etxeko animaliak jolas-gunera eramatea
- i) Paperak, plastikoak, botilak, zigarrokinak, janari-hondarrak eta beste edozein hondakin organiko edo ez-organiko lurrera botatzea edo uztea.

Arau-hauste larriak dira:

- a) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea
- b) Esparrura sartzea baimendutako kasuren batean egon gabe

Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.

16. artikulua: Zehapenak

Arau-hauste arinak 60 eurotik 150 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira; larriak 151 eurotik 600 eurora bitarteko isunarekin, eta oso larriak 601 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunarekin.

17. artikulua: Xedapen orokorrak

Ordenantza honen aurkako ekintzak edo ez-egiteak administrazioko arau-haustek izango dira, eta bertan aurreikusitako moduan zehatuko dira.

Beteluko Udalaren eskumenekoak ez diren arau-haustek administrazio eskudunari bidaliko zaizkio.